

Txondor - plazak

Egur ikatzak sekulako garrantzia izan zuen Erdi Arotik XIX. mendera bitartean. Handik atzera, beste energia iturriak ikatzaren lekua hartuz joan dira.

Ibilbide honetan barrena, eta basoan sartu beharrik ere gabe, aurkituko ditugu ikazkintzaren arrastoak, txondor plazetan. Txondorrean mantso-mantso egosten ziren neguan botatako pago eta arte egurrak.



Nola egiten zuten ikatza? Egurra zutik jartzen zuten zirkulu zentrokideak osatuz haga baten inguruan (*alkate* deiturikoa), eta zoluaren erdian haga (sekzio zirkularreko egur luzea) jartzen zuten zutik. Hagaren inguruan zutik jartzen zituzten egurrek azkenerako kono itxura ematen zioten txondorriari. Azkenean, dena lurrez estaltzen zuten. Lurrez estali ondoren, erdian jarririk zeukaten haga atera eta zulo hartan brasa sartzen zuten. Ondoren, txondorriari tximinia txikiak egiten zizkieten behe aldean, suak arnasa har zezan. Zenbat denboran edukitzen zuten txondorra edo ikaztobia sutan? Sei tona egurreko txondorra 10 egunean edukitzen zuten sutan, eta 2 tona ikatz ateratzen zituzten handik.



Sarbideak



Informazio orokorra

Festak:
Uztailak 31: Inazio Deuna

Zerbitzuak:
Udaletxea: 943 652413
Tolosaldea Bus (Autobus Zerbitzua): 943 650621
Frontoia
Jolas parkea

Jatetxeak:
Arandia: 943 652262



ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA
Santa Maria plaza 1 • Tel. 943 697 413 • Fax: 943 676 213
E-mail: tolosaldeatour@euskalnet.net • Web: www.tolosaldea.net

IBILALDIAK TOLOSALDEAN BARRENA



Antton Iztueta

ALTZO

Altzomendiko ibilaldia

11,6 Km.

PR-Gi 113

Puntos de interés

1 Zanbaluko iturria.

2 Gaur egun **Arteaingo** gunean borda eta karobi zahartu bat besterik ez egon arren, garai batean Altzo Muñoko bilgune garrantzitsua izan zen. Bertan mendi-gizonak biltzen ziren: ikazkinak, artzainak (hiru borda zeuden), karegileak eta Nafarroatik Azkarateko kalezadatik kostaldera zihono jende guztia.



Galemis

3 **Artadi kantauriarrak** itxura berezia eman dio gure inguruari. Arteak ohikoak dira karstiar giroko lur lehor eta pobreetan. Artadiak gure parajeak dibertsifikatu eta aberastu egin ditu, h e m e n nagusi den kolore berde argia, berde ilunago z zipriztinduz.




Galemis



Galemis

C.T. Lanseros


Horrez gain, artadiak bioaniztasuna areagotzen du, artadietan bizi baitira berez giro atlantiarreko basoetan, hemengo pagadietan esaterako, bizi ez diren espezieak.



4 Eneolitiko-Brontze Arokoa izango da artzaintza Altzomendin. Hala ematen dute aditzera 1991n **Otsabion** aurkituriko **trikuharriak**, eta 1981n **Pagoaundin** aurkituriko **tumuluak**. Biak kareharrizko harlauzaz eginak daude. Oraindik ez dakigu barruan zer daukaten, indusketa arkeologikoak egin gabe baitaude.



PR-Gi 113



Iraupena	Luzera	Desnibela
2:45 ordu	11650 m.	350 m.

Ibilbidea Altzo Muñon hasiko dugu, Lizarribar eta Elordi etxeen tartetik abiatzen den pista asfaltatuan gora. Bidean goazela, Gereizeagako oigetarako gunetik pasako gara, eta gero, Goikoetxe baserritik. Arrimagara iritsitakoan Azkarateko bidea hartuko dugu; bide horrek Arteainera gerturatuko gaitu, eta han ikusiko ditugu karobi baten hondakinak eta borda bat. Ondoren harrobi gainetik joango gara, GR121etik; GR121a Zarateko leporaino iristen da (Nafarroako muga). Harrobia amaitu ondorengo bidegurutzearan guk eskubira egingo dugu Legasako bidetik, GR121 ezkerretara utziaz. Basabide hau, lehenik pagadi eder, eta ondoren artadi kantauriar zoragarri batetik igarotzen da. Zitzaolara iristerakoan berriro GR121 hartuko dugu baina aurkako norabidean lehenengo bidegurutzera heldu arte. Behin hara iritsita, joandako bide beretik bueltatuko gara. Puxika formako ibilbide labur honek 11,5 km inguru ditu.

Bestalde, Zitzaolan, eskuinera jo beharrean, ezkerrean jo dezakegu, eta Laparmendira igo gaituzke (812 m). Talsia hartatik inguruko mendien bista zoragarriez gozatu ahal izango dugu. Gainera, monumentu megalitikoak ikus ditzakegu ibilbide honetan: Pagoaundiko tumuluak eta Otsabioko dolmena.